

## Alga inbaditzaileak.

Posidonia bere hostoen gainean espezie epifito ugari babesten dituen itsas fanerogamo bat da.

Gainera, bere inguruan Mediterraneoko biozenosi anitz eta aberatsenatarikoa sorrarazten du... eta baita hauskorrenatarikoa ere.

Posidonia desagertzen bada, krustazeoak, ekinodermoak, harrak eta arrain txikiak ahuldu egiten dira.

Arrantzak ez dio hondamendiari ihes egingo.

*Caulerpa taxifolia* latitude epeletara 1980 hamarkadan gizakiaren eraginez iritsi zen alga tropikala da, eta sartaldeko Mediterraneoko ipar kostaldean ugaritzen ari da.

Bere hostotza eta eratzen dituen larreak ikusita, bere komunitateek itsas hondoak aberasten dituztela pentsa dezakegu.

Bere estoloi indartsuak azkar garatzen dira eta ia edozein baldintzatan.

*Caulerpa* lahar ugalkorrek hazi eta hedatu egiten dira. Eragin suntsitzailean Atila berri bat bezala.

Sustraitzen diren lekuan ez da gehiago belarrik haziko. Posidonia, inguraturik, lurraldea galtzen ari da.

Inguruan bizitza biltzen zuten fanerogamo hosto gutxi batzuk besterik ez dira gelditzen.

Akuario publiko zein pribatuek espezie tropikalak izan ohi dituzte bertakoak baino deigarriagoak direlako.

Baina ikusgarriena ez da beti onena. Ezerk ez du espezieek beraien nitxo ekologikoak elkarretaratu dituzten ekosistema baten edertasuna gaitzen.

Arazoa Monakoko Ozeanografia Museoan hasi zen, itsasora egiten zituzten isurketek *Caulerpa*-ren elementu ugalkorrek zituzten eta.

Ordutik, inork ezin izan du inbasioa kontrolatu ezta menderatu ere.

Posidonia motelak ezin du ezer egin *Caulerpa*-ren ugaltze indarraren aurrean.

Guneak aurkitu eta hedapena kontrolatzeko ahaleginak alferrikakoak izan dira.

Eta Posidonia belardi hauskorrek desagertzen ari dira.

Baina ezin dugu amore eman.

Behatzen eta ikertzen jarraitu beharra dago.

Ezinezkoa da *Caulerpa taxifolia* bere generokoa den beste espezie batek, *Caulerpa proflera* k, betetzen duen funtzioa betetzea. Azken hau mediterraneokoa bertakoa da eta ez da fanerogamo larreentzat mehatxu bat.

Horregatik, lanak aurrera jarraitzen du, itsasoan zein laborategian, izurrite hau desagerrarazteko ahalegin etsian.

Garaipen ziurrik izan ez arren, Mediterraneoko Posidonia oceanica larreen desagertzea geldiarazten saiatu beharra dago.